

OSTIRALAK

Gerente Juana goiz jaiki zen ostiralean. Egian erran, bi ordu lehenagotik egona zen esna ohe barneko epelean, iratzargailuak noiz joki zain. Ostiral guztietan berdin gertatzen zitzaion: urdintasunak ez zion ongo lo egiten uzten. *Tira*, pentsatu zuen Gerente jaunak, *horrek erakusten zidak oraindik ere arima gaztea dudala*.

Arima gaztea bai, baina haren hazpegiek bestelako itxura azaltzen zuten bainugelako ispiluaz bestaldean. Itxura ona, freskoa inoiz baina premiatsuago zeukanean..... ostu behar atsedeen faltak. Ederra kontura. Grenet jaunak, baina, ez zuen adorea galdu. CD irakurgailu txikia piztu eta Vivaldiren Lau Sasoiaren edertasunari utzi zion bere barnean sartzen. *Tira*, berrogeita hamabost urte zituen, ez zuen zertan hogeitaz urteko mukizu baten itxura eduki, ezta? Izan ere, adin ertaineko gizona izateko sasoi ederrean zegoen eta bera ederki oharturik zegoen horretaz. Bizimodu osasungarriak, jakina, zerikusi handia zuen trenpu on hartan: eguneroko paseotxoak, gantz gutxiko otorduak, alkohol eta tabakorik batere ez, eta, batez ere, bizitzako gorabeherei aurre egiteko modu lasaia. *Horrek, guixienez, hamar urtez gaztetu naik*, pentsatu zuen Grenet jaunak, dutxa hotzaren azpian sartzen zen bitartean.

Bai, inondik ere Grenet Juana gizon lasaia zen. Bizitzak erakutsia zion pazientziaren balio handia. Lasaitasunaren ahalmen aparta. Pazientziak oztoporik handienak gainditzen zituen, korapilorik bihurrienak askatu. Grenet jaunak arazoen kontra oldartzea baino nahiago zuen arian-arian higitzea: gaur ez bada, bihar izanen da. Eta bihar ez bada, etzi.

Pazientzia, pazientzia eta pazientzia.

Grenet jaunak ur beroko minutu bateko atsegina eman zion bere gorputzari. Merezia zuen, ze arraio. Gero, giharrek tonua nola hartzen zuten sentitzen zuen, dutxatik atera eta bizarra egiteko prestaketei ekin zizkien, esanahia sakoneko zeremonia bati bezalako aldarteaz. *Gaur izanen duk eguna*, egin zuen bere artean. Senti zezakeen, nola entzungaitz baten oihartzunaren antzera. Vivaldiren eskala alaiek ere mezu bera zekarkioten: *gaur izanen duk*.

Pentsamendu hark bizkortuta, txabusina batean bildu eta gosaria prestatzera abiatu zen. Sukalde txukunean sartu orduko, bezperan erositako loreen lurrina sudurreratu zitzaion. Dozena bat arrosa, sugar eztanda gorrimin bat sukardearen zurian. Propio erositako lorontzi batean jarriak zituen kontu handiz, ega bezparen bezain itxura freskoa zuten. Kafe potea atera zuen. Berezia zen, ohikoa baino marka garestiagokoa. *Abaguenak merezi dik*, pentsatzen zuen Grenet jaunak, *Ostiralak merezi dik*. Kafea egin bitartean loreak usaintzera hurbildu zen. Zalantza bat: ez ote zen ausartegia izanen? Azken batean, arrosa gorrien esanahia... *Ez*, zuzendu zion bere buruari Grenet jaunak, mundua *ausartena duk*. Bai, beldurtiek jai zuten. Batez ere adin ertaineko beldurtiek.

Hala ere, ogi xerrak xigortu bitartean, Grenet jaunak ezinegona hazten sentitu zuen bere baitan: *Neska oso gaztea duk. Hogeita hamar urte izanen dituk gehienez ere.*

Hogeita bost urteko aldea. Ez zen txorikaka.

Jainkoa... Jainko maitea!

Grenet Jaunak indar handiz heldu zion mahaiaren ertzari, hazkozkorrak zuri-zuri jartzeraino. *Hogeita bost urte.* Ez zuen horretaz pentsatu behar, ederki zekien. Baina zenbakia ikaragarria zen, izan ere. Eta haren atzean zegoen guztia are ikaragarriagoa ere. Adibidez, neska hura jaio zenerako berak hobeita bost urte beteak zituen. Harrezkero lau urte emanak zituen lanean. Bost urte ziren soldaduska amaitu zuenetik. Bi aldiz maitemindua zen, eta bi aldiz bihotza urratua.

Hogeita bost urte: mundu bat.

Zer erran behar zion neska hari? Nola hurbildu zuen bere alaba izan zitekeen emakume batengana? Zer aurpegia ipiniko zion neskak halako eskaintza batekin etorritako *agure* bati? Irri egingen zion? Beldurra erakutsiko zuen? Naska? Zer?

Ez, ez, ez! Grenet jaunak kopeta jo zuen ukabilaz. Pentsamendu txar haiek uxatu egin behar zituen. *Porrotaz pentsatu ere ez duk egin behar.* Azken batean, benetan garrantzitsua zena ez zen adina edo itxura, baizik eta izaera, arima. Eta maitasuna. Sentimenduak. Gainea, emakune anitzei ez zitzairen hainbeste axola itxura. Ez, haiek gizonezkoak baino askoz ere argiagoak ziren, haiek barrukoari begiratzen zioten.

Eta Grenet jaunaren barrukoa ezin hobeia zen. Gizon jantzia zen, irakurria. Zine ona ikusten zuen. Eta denetariko musika zuen gustoko. Azken aldi hartan, gazteak txoratzen zituen musika aldrebes hartara ere hurbildua zen... maitasunak bultzatuta, jakina. Kemenez jantzi eta arratsalde batez disko denda batera joan zen musika modernoko disko batzuk erostera. Baten batzuk aliritzira hartuta etxeratu zen. Ordaintzerakoan, ordean, dendari nerabearen harridura keinuak zaurituta, Grenet jaunak oparirako biltzeko eskatu zion. Porrot txiki bat izan zen hura, onartu beharra zegoen. Egia erran, erositako diskoak ez zituen batere gustoko, baina egunero bat gutxienez entzutera behartzen zuen bere burua. Terapia latza zen, baina gaztetu egingen zuelakoan zegoen Grenet Juana. Gainera, bere bihotzeko laztanarengandik hurbilago sentitzen zen musika gazte hura entzunez.

Kafe egin berriaren usain epelak munduratu zuen berriz ere Grenet Juana. Gosaltzera eserita, arestiko kezak lausoturik agertzen zitzaizkion. Azken batean, zentzugabekeria hutsak ziren. Tira bai, hogeita bost urte, eta zer? Egunean dozenaka bikote ezkonduko ziren elkarri hura baino alde handiagoa kentzen ziotelarik. Hirugarren munduan kontu arrunta zela entzuna zuen Grenet jaunak. Adin ertaineko gizonezkoek neskato, *hurrekin* ezkontzen

ziren. Errua mendebaldeko kulturak zuen. Baita kristautasunak ere. Jendearen zorionari oztopoak jartzeko nahi alu hark sutan jartzen zuen Grenet Jauna.

Bera oraindik emakume bat zoriontsu egiteko gauza sentitzen zen. Gizon sentiberta zen, xehatasunei garrantzia ematen zieten horietakoa. Begirunez eta goxoki tratatuko zuen bikotekidea. Amultsuki. Mukizu harroxka haietako batek baino hagitzez ere samurrago, seguru.

Gainera, ez zuen ahaztu behar neska hura goxo-goxo aritu zela harekin hizketan. Izan ere, *neska* izan zen hitz egiten lehena. Gosaria patxadaz ahoratu bitartean, Grenet jaunak berriz ere une magiko hartako irudi zoragarriak ikusi zituen bere buru barneko zinema pantailan.

Ostirala zen eta Grenet jauna erosterak egiten ari zen auzoko supermerkatuan. Bat-batean, kamioi txiki bat gelditu zen dendaren aitzinean. Edari ezagun baten iragarki deigarritz jositako ibilgailutik Grenet jaunak sekula ikusitako neskari ederrena jaitsi zen. Ile hori fin-fina motots luze batez bildurik zerman. Ez zen oso altua, eta aukeran gihartsu samarra zen, baina halko grazia liluragarri batez mugitu zen, freskagarri botilez zamaturiko eskuorga kirrinkaria dendaratzeko bidean. Grenet jaunak perlesiatu bezala erreparatu zien neskaren mugimendu airosoei, haren lurrin garbiari, dendariarekin jarduteko modu atsegin eta apur bat lotsagabeari.

Grenet jaunaren zeru bakartian izan eder bat piztu zen ostiral hartan.

Baina hoberena etortzeaz zegoen. Dendaria dendostera sartu zen neskak ekarritakoak gordetzera. Eta Grenet jauna neskarekin gelditu zen supermerkatuko bakardade amaiezinean. Grenet jauna oso gizon lotsatia zen. Bereziki emakumeekin...eta batez ere gustoko zituen emakumeekin. Bere beldurra gizalegezko portaera zurrin samar baten atzean ezkutatzen ohi zuen. Baina itxura hotz haren pean samurtasun eta sentiberatasun altxor bat gordetzen zen: Grenet jauna bihotz beroko gizona zen.

Grenet jaunak zerbait erran behar zuela sentitu zuen. Bere gorputzeko zuntz guztiek hala ohiukatzen zioten. Ahoa zabaldu balu, ordea, igogailu-salasa aterako zitzaion inondik ere: eguraldiaren gaineko iruzkin gatzgabe bat, banatzaile lan akigarriari buruzko zozokeriaren bat...

Beharrik, Grenet jaunak ez zuen horretarako aukerarik izan.

- Bai gorbata ederra – erran zion neskak.

Grenet Jaunak aho bete hortz gelditu zen. Gorbata ederra? Baita zera ere. Ederra aspaldiaren aspaldian lau sosetan erositako... zer hura? Hark, inondik ere, txantxa izan behar zuen. Iseka anker bat. Baina neskaren begi zoragarrietan txantxa ez, baizik eta halako mirespen zinezko, *zintzo* bat besterik ez zuen aurkitu Grenet Jaunak. Gorputzeko odol guztia aurpegiratzen sentitzen zuelarik, Grenet jaunak ahoa zabaldu zuen, gorbata nahiko zaharra zela zezelkatzeko, maiztuta zegoela gainera, eta...

-Klase handia dauka –eten zion neskak-. Jende gutxi daki gustu onez janzen. Gizon batengan oso tasun ederra da arropa egoki aukeratzen jakitea... ala emazteak erosi zizun?

Grenet jaunak ezetz erantzun zion totelka, bera ez zegoela ezkondurik... eta harrezkero ez zuela ezkontzerik espero gaineratu zuen, bihotz-bihotzetik atera zitzaion aitoren moduko batean. Orduan neskak iribarre egin zuen. Itzultzeko modulo iribarre bat. Eta keinu erogarri hura ezpainetan, neskak Grenet jaunak sekula entzundako gauzarik ederrena erran zuen:

- Adinak ez du axolarik. Axola duena norberaren barrukoa da. Eta seguru nago emakume anitzek nahiko luketela zu bezalako gizon batekin egotea.

Grenet jauna mahaitik jaiki eta gosarikoa garbitu zuen. Orain, neskarekiko elkarrizketa labur baina zirraragarria gogoratua, gogotsuago sentitzen zen. Ekintzarakao prest. Bezperan lisatu eta logelako aulki baten gainean txukun-txukun utzitako trajea janzen zuten bezalako arretaz.

Ez, ez zuen zertan kezkatu adin aldeagatik. Neska zoragarri harekin ez: hark haratago begiratzen zuen. Eta ez zeraman eraztunik, ederki ohartu zen Grenet jauna.

Azkenerako utzi zuen gorbata janztearen erritua. Oihal zerrenda hura maizten hazia zen: bixarrak zituen ertzetan eta koloreek ere lehengo distira galdua zuten. Horrek itzal bat landatu zion Grenet jaunari bihotzean. Hiriko denda guztietan saiaturik zuten antzeko beste gorbata bat aurkitzen, baina alferrik. Zaharregia omen zen, “modaz pasatua”. Inozoak halakoak! Klasea sekula ez zen modaz pasatzen.

Ispiluaren aitzinean Grenet jaunak korapiloa zuzendu zuen. Bi urrats atzera eginda, emaitzari so egin zion begi kritikoez. Ederki. Adin ertaineko gizon bat. Adin ertaineko gizon *interesgarri* bat.

Gizon maitemindua.

Erlojuari begiratu zion. *Gaur izanen duk eguna*. Urduri sentitzen zen. *Gaur!* Sukaldean sartu eta arrosa sorta handia hartu zuen. Etxeraren isiltasunean Grenet jaunak bere bihotzaren taupadak entzuten ahal zituen argi eta garbi. Laster, baina, beteko zituzten gela hits haiek emakume baten irri argiek.

Zeremonia handiz, Grenet jaunak korridoreko leihoa zabaldu zuen. Gongidatu desatsegin baten antzera, neguko hotz gordina oldarrean sartu zen. Baina ekintza xume hark bazuen azalpena: neska ezagutu zuen ostiral magikoan lehio hura zabaldua zuen etxetik atera baino lehen. Grenet jauna ez zen inondik ere sineskeriazalea, baina onartu behar zuen aspaldi hartan halako beste ohitura inozo batzuk hartuak zituela. Leihotik karrikako autoei begiratzea, adibidez: etxe azpitik pasatuko zen hurrengo autoaren kolorea asmatuz gero, zortea alde izanen zuela pentsatzen zuen Grenet jaunak. Zortea neskarekin, erran nahi baita. Berdin, CD irakurgailuko “random” tekla sakatuta hurrengo

abestia azmatuz gero. Orduak ematen zituen jolas haietan. Baina Grenet jauna ederki ohartzen zen denborapasa inozo, kaltegabeak zirela haiek. Ostiral hartatik aitzina, begiko ahaztuko zituen jolas ergel haiek.

Karrika presaka zebiltzan jendez beterik zegoen. Haien muturbeltzak ikusita, Grenet jaunak burua astindu zuen: jende haiek guztiek berak lortu ezin zuen maitasuna izanen zuten. Gehienak aurreko gauean bertan beren bikotekideen ondoan lo eginak izanen ziren. Eta hala ere, kopetilun zebiltzan karriketan barrena. Grenet jaunak ezin zuen ulertu.

Supermerkaturainoko bidea patxadaz egiten ahalegindu bazen ere, Grenet jauna nahiko urduri zegoen dendako argi distiratsuak begiztatu zituenerako. Neskarekiko topo egitearen ondorengo astean egunero-egunero azaldu zen dendan, bere ametsetako izarra berriz ere dir-dir ikusteko itxaropenaz. En zen ausartzen dendako arduadunari galdetzeraz. Berehala igarriko zion lodikote maltzur hark zer zela-eta hainbesteko interesa freskagarrien kamoiazen ordutegiari buruz. Eta Grenet jaunak ez zuen nahi gantz-zaku hark bere amodioaren araztasuna zikintzerik. Pazientziak eta tentu handiz egindako galdera batzuek jakinarazi zioten freskagarriak ostiralek bakarrik banatzen zirela auzo hartan. Ostiralek, goizeko bederatzi eta erdietan puntu-puntu.

Grenet jaunak erlojuari begiratu zion. Ordua zen. Mihiaren punta ezpain lakarretatik igaro zuen. *Gaur izanen duk*. Berriz ere, hamaika aldiz pentsaturiko hitzak ekarri zituen gogora. Samurtasunez zamaturiko hitzak, bihotz-bihotzez asmatuak, maitasun ero batek iradokitakoak. Bakardade gorriak indartuak. Ez ahal zitzaizkion ahantziko! Ez ahal zitzaion ahotsa dardaratuko!

Kolore deigarriko kamioia kale kantoian agertu zenean, Grenet jaunaren bihotzak jauzi egin zuen. *Hor zetorrek*. Listua irensten saiatu zen, baina eztarria erabat lehor zuela konturatu zen. Kamioia denda aitzinean gelditu zen. Mugimendu zalu batez, neska jaitsi eta kuxkak gurditxoan zamatzen hasi zen. Haren adatos maitagarriak distira araz bat zabaltzen zuen goizeko eguzkiaren printzek ferekatuta. *Adorez jantzi behar duk*, pentsatu zuen Grenet jaunak, larriturik. Adorez jantzi eta karrika zeharkatu. Eskuan zeuzkan arrosen lurrina sudurreratu zitzaion. *Honelako usaina zabalduko zuen neskaren...*

Grenet jaunak burua astindu zuen.

Neska dendara sartu zen, beirazko atea ipurdi zoragarriaz bultzatzuz. *Bizkorrago ibili behar duk*, egin zion errieta Grenet jaunak bere buruari. Baina ez zuen axola: ateratzerakoan eginen zuen. Neska begien bistatik galduta, errazago gertatu zitzaion Grenet jaunari karrika zeharkatzeko kemena biltzea. Kamioiazen eta dendako atearen artean kokatzea ilitzateke hoberena. Hala eginez gero, ordea, denda barnetik ikusiko zuten. Dendariak, lodikote zikin hark ikusiko zuen... baita neskak ere. Eta barre egiten bazioten? Eta gantz-zaku hark meziprezuzko iruzkinen bat egiten bazuen? Adinari buruzko txantxa ankerren bat, adibidez?

...eta, izan ere, ez al zen barregarria? Grenet jaunak bere buruaren isla aurkitu zuen supermerkatuko beiretan. Gorbata zarpail batez jantzitako agure bat ikusi zuen, eskuetan arrosa sorta nabarmenegi bat zeramana. Izu gorriko aurpegi haren isla penagarria ikusita, Grenet jaunaren kemena kea bezala suntsitu zen. Izulaborriak hartuta, ihesari eman zion. Haren atzean freskagarrien gurditxoaren kirrinka entzun zuen, baina ez zuen burua itzuli: neskak ezagutuko oten zuen beldur zen. Eta lasterka bizian urrundu zen Grenet jauna, lotsa gorriaren erredura hozka zeukala aurpegian eta ariman.

Hogei minutu geroago eta lau karrika haratago, arnasa bere onera ekarri ahal izan zuenean, Grenet jaunak lasaiago pentsatu ahal izan zuen. Ez zen bere buruaren kontra hasi. Ez zuen pazientzia galdu. Errazegia zatekeen eta, azken batean, ez zuen inolako balio praktikorik izanen. Zapuzturiz zegoen eta, bai, apur bat haserre hain... tira, bai, hain *koldarra* izateagatik. Baina en zuen pazientzia galdu behar: azken batean, astebeteko atzerapen bat besterik ez zen izanene, ezta?

Grenet jauna, askoz ere lasaiago, etxerako bideari lotu zitzaion. Parkeko zakarrontzi batera bota zuen lore sorta ederra. Urteak ostiral anintz zituen, berrogeita biren bat, hain zuzen. Eta Grenet jaunak pazientzia handia zuen.

Izan ere, zorioneko ostiral hartatik igaroak ziren zortzi urte haietan amore eman ez bazuen, zertan etsi behar zuen orain?, pentsatu zuen hagitzez ere alaiago.

ZURIAIN